anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2015eko azaroaren 6a
13. urtea
609. alea
www.anboto.org
TOKIKOM

Kultura

‘Pintto Pintto’ antzezlana estreinatuko du Miren Larrea kide duen Anita Maravillas taldeak, Zornotza Aretoan, bihar > 11

Estatuko ziklistarik onenak batuko ditu, domekan, Elorrioko ziklo-krosak

Espainiako Koparako laugarren proba puntuagarria izango da. Guztira, 500 txirrindularik parte hartuko dute, eta Aitor Hernández eta Aida Nuño dira faborito argiak, elite mailan. Aurten, 40. aldia egingo du Elorrioko ziklo-krosak, eta, horren harira, herriko ekoizleen nekazaritza produktuen azoka antolatuko dute, proba jokatuko den San Jose landa inguruan. > 16

“Futbola ezin izango dut orain arte bezala bizi, baina lagun artean ibiliko naiz” > 15

Jon Apraiz Amorebieta taldeko jokalari ohia

Babeseko etxe hutsak bete ezinik

Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, Durango da babeseko etxe huts gehien daukan EAEko bigarren herria, Gasteizen atzetik. San Roke eta Faustegoienako promozioak kontuan hartuta, 62 etxe daude adjudikatu barik. > 2

90 GRADU
LAN BERTIKALAK
TRABAJOS VERTICALES
FATXADA ETA PATIOEN KONPONKETAK ETA MARGO LANAK
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Tel.: 616 413 660
info@90gradu.com
Bernagoitia auzoa, 14 - ZORNOTZA
ALDAMIORIK GABE

Otxandio > 6
Auzo konposta egiteko gunea egokituko dute, Indusibide kalean

Berriz > 6
Euskaraz bizi nahi dut lasterketa antolatuko dute, domekarako

Atxondo > 8
Jarduera-lizentziaren %85 jaitsi du udalak ordenantza fiskaletan

Elorrio > 9
Lau urterako Gobernu Plana osatu gura du gobernu taldeak

Herririk herri

Gasteizen atzetik, Durango da babeseko etxe huts gehien duen EAEko bigarren herria

San Rokeko etxeetan, 144tik 42k adjudikatu barik jarraitzen dute; Faustegoienan, 42tik 20 daude hutsik

DURANGO Markel Onaindia

Babeseko etxeak tokatzea loteriaren moduan ospatzen ziren sasoiak historia dira. Joan dira etxeen zozketak ikusminez jarraitzen ziren egunak. Etxebizitza merkatuaren loraldian, instituzioek babeseko etxeak eraikitzeko apustua egin zuten, eta, kasu batzuetan, ez zaie ondo atera. Krisiaren ondorioak dira. Hori gertatu da, adibidez, Durangoko San Roke eta Faustegoienako promozioetan.

Jaurlaritzak bultzatutako San Rokeko etxeetan, 144tik 42k adjudikatu barik jarraitzen dute, eta, horregatik, Lakuako gobernuak esan du Durango dela babeseko etxe huts gehien duen EAEko bigarren herria, Gasteizen atzetik –Arabako hiriburuan 74 etxe daude eman barik, baina 1.351 egin ziren–. Baina, udalak sustatutako Faustegoienako etxeak kontuan hartuta, kopurua handitu egiten da; beste 20 etxe daude jabe zain.

62
etxe daude adjudikatu barik Durangon

409
lagunek uko egin zuten San Roken eta Faustegoienan

San Roken 42 etxe daude hutsik, Jaurlaritzak emandako irraileko datuen arabera.

Guztira, 62 etxe daude adjudikatu barik, Durangon. EH Bilduk zabaldu ditu datuak, eta bere ustez, "Durangon garatutako etxebizitza politika negargarria erakusten dute".

Alokairua, gero erosteko

Eusko Jaurlaritzaren menpeko Visesa erakundeak sustatuzituen San Rokeko etxeak. 298 lagunek uko egin zioten etxeari, askok maileguak lortu ezinik, eta orain, zuzeneko salmentagaz dabiltza. Bertako arduradunek adierazi dute, hutsik dauden etxeak eskriturak egin barik egon arren, "gehienak tramitatzen" daudela. Edozelan ere, eta etxeak 2012an eraikitzen hasi zirela ikusita, laster alokairuan ematen hasteko asmoa agertu dute. Baliteke urtarrilean bertan izatea. Hori bai, alokairua erosketa aukeragaz izango da, eta Visesakoek onartu dute azken helburua etxea saltzea dela.

EH Bilduk bestelako proposamen bat aurkeztu du: udalak hartzea bere gain etxe huts horien gestioa, eta alokairuan ematea.

118tik, 42ra

Faustegoienan 118 etxebizitza egitea aurreikusi zuen udalak, baina eskatzaile faltaren aurrean, 70 etxegaz hastea erabaki zuen lehenik. Gero, kopurua 42 etxetara murriztu zen. Izan ere, 111 uko egon ziren. Kooperatiba erregimenean eraikiko dituzte etxeak, eta, momentuz, 22 bakarrik daude hartuta. Udalak 7 hartu behar izan zituen bere gain proiektua aurrera ateratzeko, eta beste 13 jaberik barik daude.

Kooperatiba erregimenean eraikiko dituzte etxeak, eta, momentuz, 22 bakarrik daude hartuta

Alokairu programa

Durangoko Udalak herriko etxe huts pribatuak alokairuan ipintzeko programa bat ipini zuen martxan duela hilabete, eta, momentuz, ez du ekimenaren inguruko baloraziorik egin. Udaleko alderdiek programa horri ekarpenak egiteko aukera edukitzea eskatu du EH Bilduk.

Egoera berrira egokitzen dabiltza instituzioak, etorkizunerako formulak topatu guran. Argi dago, babeseko etxeen loteriak ez duela eduki espero izandako saria.

Durangon, Alokabideko etxeetan kaleratze bi egon dira aurten

EH Bilduk kaleratzeei aurre egiteko protokolo bat garatzea eskatu du udalean

DURANGO M.O.

Salmenta bidezko etxeen datuez gainera, alokairu publikoaren inguruko beste bat zabaldu du EH Bilduk, hau ere Eusko Jaurlaritzak argitaratutakoa: Durangon, Alokabideko etxeetan kaleratze bi egon dira aurten.

Koalizioak kaleratzeak salatu ditu, eta udalean kaleratzeei aurre egiteko protokolo bat martxan ipintzea eskatu du. Osoko bilkuran, kaleratzeen aurkako mozio bi onartu ziren

Sektore pribatuari dagokionez, iaz 70 kaleratzetik gora sinatu ziren Durangoko epaitegian

2012an, baina badirudi ez dutela eraginik eduki. Iaz ere, gutxienez, kaleratze bi egon ziren Alokabideko etxeetan.

Bestalde, sektore pribatuari dagokionez, iaz, 70 kaleratzetik gora sinatu ziren Durangoko epaitegian –Durangaldea eta Arratia jasotzen ditu–, eta 2013an 64 izan ziren. Momentuz, ez dute aurtengo datuen berri eman.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko azaroaren 6a,
13. urtea - 609. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

Laguntzaileak:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Tramiteak errazteko konpromisoak, hartuta

Tramiteen kutxazaina aldatuko dela esan du alkateak, eta elkarteei prozesua erraztuko die

DURANGO Markel Onaindia

Aitziber Irigoras alkateak udal tramiteak errazteagaz lotutako konpromiso bi hartu zituen, joan zen astean burututako osoko bilkuran. Alde batetik, tramiteak norberak egin ahal izateko kutxazaina irisgarri bihurtuko dutela esan zuen, eta, bestetik, herriko elkarteei tramiteen prozedura azkartuko dietela ere bai. Herritarren Arretarako Zerbitzuan, 22:00ak arte kutxazain bidez egin ahalko dira tramiteak, baina makina altuegi dago, eta aldatu egin beharko dute, mugikortasun arazoak dituztenei ere egokitzeko.

Bestalde, EH Bilduk azaldu zuen elkarteek eskaeraren bat dutenean luze jotzen duela prozesuak, eta alkateak hori hobetuko duela baieztatu zuen.

Herritar bat, HAZen dagoen kutxazaina erabiltzen.

Durango bonbardatu zutenak omendu izana salatu dute

DURANGO M. O.

Sare Antifaxistak Durango bonbardatu zuten italiar faxistak omendu izana salatu du. Eguaztenean, Italiako armadaren egun nazionala ospatzen zen, eta horren harira, Associazione Nazionale Combattenti in Spagna elkartekoek eroritako militarren aldeko ekialdiak egin dituzte, azken egunetan, Espainian.

> Eguaztenean, Madrilen dagoen Italiako enbaxadan burutu zuten omenaldia

Eguaztenean, Madrilen dagoen Italiako enbaxadan burutu zuten omenaldia, eta Falangeko kideak ere egon ziren. Eroritakoen artean, 1937an Durango bonbardatu zuten faxistak ere omendu zituzten. Errepublikaren aurka, Francori lagundu zioten italiar abiaziokoak, hain zuzen.

"Hezkuntza eredu propioa" eraikitzeko deia egin dute

LOMCEren inguruko berbaldia egingo dute, hilaren 11n

LOMCEren aurka Landako eskolan iaz egindako elkarretaratzea.

DURANGO M. O.

LOMCE legearen aurka dauden hezkuntza plataformen topaguneak mobilizazioak deitu ditu azaroaren 28rako, eta deia egin du eredu "atzerakoi, merkantilista eta inposatu" horren gainetik, Euskal Herrirako "hezkuntza eredu propioa" eraikitzeko. Topagune horren baitan Durangon batzen den taldeak bat egin du mobilizazioekin, eta horren harira, beste ekintza batzuk ere antolatu dituzte, gainera.

Datorren eguaztenean, azaroaren 11n, LOMCEren inguruko berbaldia egingo dute Pinondo Etxean, 18:30etik aurrera. Horretaz aparte, Durangoko hainbat ikastetxetan elkarretaratzeak burutzeko asmoa dute hilaren 26an, 28ko mobilizazio nagusien aurrekari moduan.

Hilaren 28ko manifestazioak hiriburuetan izango dira, eta, Bilbon, Zabalburu plazatik hasiko da, 17:00etan. Antolatzaileek azaldu dutenez, kalejiran egingo dute protesta.

Ipuin laburren lehiaketaren bigarren aldia abiatu du Berbaro Taldeak

Iaz, 400 ipuin labur baino gehiago jaso ziren twitter zein helbide elektroniko bidez

Iazko lehen aldiko sari banaketa ekitaldia, Plateruenean. Goian epaimahaiko kideak, eta behean irabazleak.

DURANGALDEA J.Derteano

"*Esne mamitan bizi nahi zuen, baina alergia zion laktosari*". Horixe da iaz saritua izan zen ipuin laburretako bat. Aurten ere, berba askorik barik gauza ederrak kontatzeko kapaz sentitzen denak badu horretarako aukera. Iazko lehen aldiko arrakastak animatuta —400dik gora jaso ziren— martxan da ipuin labur lehiaketaren bigarren aldia.

Adinaren arabera, hiru mailatan parte hartu ahalko da. 14-16 urte arteko (1999, 2000 eta 2001 urteetan jaiotakoak) Durangaldeko ipuin laburrik onena, 17 urtetik gorako (1998an edo lehenago jaiotakoak) Durangaldeko ipuin laburrik onena, eta twitterreko ipuinik onena (adin guztietara irekita). Lehenengo bietan, helbide elektroniko bidez helarazi behar dira ipuinak: *365ipuin@berbaro.eus*. Twitter bidezko ipuinek traola hau erabili behar dute: *#365ipuin*.

Gaia librea izango da, eta baldintza nagusia, kasu denetan, gehienez, 140 karaktere erabiltzea da. Oinarri guztiak *www.berbaro.eus* webgunean aurkitu daitezke.

Ipuin laburrak aurkezteko azken eguna abenduaren 3an izango da, Euskararen nazioarteko egunean, eta sari banaketa abenduaren 16an egingo da, Plateruena kafe antzokian. 14-16 urteko ipuinik onenaren egileak tablet bat eta liburu sorta bat irabaziko ditu; gainerako biek, 100na euro eta liburu sorta. Liburuak Hitz, Urrike eta Arteka liburu-dendek emandakoak izango dira.

Launa upategia, The Wall Street Journal-en goratua

DURANGALDEA M. O.

The Wall Street Journal AEBetako egunkari ospetsuak nazioarteko ardoen inguruko artikulu bat argitaratu du, eta onenen artean kokatu du Launa upategiaren ardo bat, 'Launa Selección Familiar Crianza' hain zuzen ere. Mañariko eta Berrizko Gaztelurrutia-Unzalu familia da Launa egitasmoaren atzean dagoena, eta Guardian (Arabar Errioxa) daukate upategia.

New Yorkeko bost adituk egindako balorazioa aztertu du The Wall Street Journalek, eta bertan, 40 dolarreko kostua gainditzen ez duten nazioarteko 21 ardo aipatzen dituzte, ardo finen atalean. Bost nabarmendu dituzte, eta batez ere bi, nazioartean edukitako arrakastagatik. Hain justu ere, Launarena da goratutako bi ardo horietako bat. Artikuluan, ardo hori "fina eta suabea" dela nabarmendu dute, eta fruitu gorrien eta banillaren zapore ikutuak dituela ere bai.

EH Sukarra eta Zeinke zuzenean Luis Urrengoetxeako jaietan

Gaurtik domekara bitartean, jaiak ospatuko dituzte Luis Urrengoetxea kalean

Zeinke taldearen kontzertua zapatuan izango da, Zelaieta parkean.

ZORNOTZA J.D.

Luis Urrengoetxea kaleko tabernariek ekitaldiz betetako asteburua antolatu dute, gaurtik domekara, kaleko jaiak ospatzeko. Jaiei hasiera emango dien txupinazioa gaur jaurtiko dute, 19:00etan, erraldoiek, buruhandiek eta Oxabi kale animazioak lagunduta. 22:00etan Bostenbor taldearen kontzertua hasiko da.

Zapatuan, 11:30ean, umeentzako puzgarriekin hasiko dute eguna. Goizean, sukalkiak prestatzen ibili ostean, parte-hartzaileek 14:30erako entregatu behar dituzte platerak. 18:00etatik aurrera, Sakatu elektrotxarangak alaituko du giroa, eta 21:30ean, Zeinke eta EH Sukarra taldeen kontzertuak hasiko dira Zelaieta parkean. Domekan, 11:30ean, umeendako puzgarri eta ohe elastikoak prestatuko dituzte, eta, 13:00etan, pintxo-potea egiteko aukera egongo da tabernetan.

Ziztada Guneko kideek ere ekintzak prestatu dituzte. Bihar, 11:00etan, auzo bazkari beganoan batuko dira. Izen-ematea Ziztada Gunean edo *guneaskeaziztada@gmail.com* helbidean egin daiteke. Ostean, kantu musika jaia egingo dute.

Astepeko zoruari erabilera aldatu diote azpiegitura berriak jaso ditzan

ZORNOTZA J.D.

Astepen, termitek eragindako etxebizitzak eraitsi —18 eta 25 zenbakien artekoak— eta bertan parke, aparkaleku eta bestelako azpiegiturak egin ahal izateko beste urrats bat eman du udalak. Zoru horren erabilpena aldatzeko, arau subsidiarioen behin behineko aldaketa puntuala aho batez onartu du udalbatzarrak. Prozedurak bere bidea egiten duenean, behin betiko onarpena ematea faltako da.

> Udalak akordio ekonomiko bat du jabeekin bizilekuen jabetza lortzeko. 2016an eraitsi gura dituzte etxeak

Udalak akordio ekonomiko bat du etxebizitza horietako jabeekin. Ordaindu ostean, etxeak eraitsiko dituzte. Datorren urteko aurrekontuetan sartuko dute bi gauza horietarako diru atala.

Eskola materiala erosteko diru-laguntzen eskaera epea hasi dute

ZORNOTZA J.D.

Zornotzako Udalak herrikoei diru-laguntzak ematea onartu zuen aurreko osoko bilkuran, eskolako materiala eskuratu dezaten. Orain, ordenantza asteon indarrean sartu ondoren, eskaerak aurkeztu daitezke. Bete beharreko baldintza guztiak udaleko webgunean (*www.amorebieta-etxano.eus*) irakurri ahal dira.

Diru-laguntzak, familiaren errentak 35.000 euro gordin gainditzen ez dituztenek eskuratu ahal izango dituzte. Diru-laguntzaren zenbatekoari dagokionez, 20 eta 80 euro artekoa izango da, familia unitate bakoitzaren errenta kopuruaren arabera.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren helburua Zornotzako udalerriko establezimenduetan eskolako materiala eskuratu ahal izatea da. Materialaren barruan sartzen dira papertegiko artikuluak, uniformeak, betaurrekoak eta arropa, baita eskulanetarako materiala ere, beste batzuren artean.

“Komunikazioa hobetzeko, gazteek erabiltzen dituzten tresnetara egokitu gura izan dugu”

Ezkerrean Gaizka Laka aplikazioaren sortzailea, eta eskuinean Tomas Maguregi Iurreta LHIIko zuzendaria.

> HEZKUNTZA

Iurreta Institutua Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua (Iurreta LHII) izatera pasatu da, Lanbide Heziketa baita bere jardueraren oinarria eta helburua. Ikasturte honetarako, ikasleekin komunikazioa errazteko proiektu bat jarri dute martxan. Egitasmo honi esker, mugikorrean deskargatu daitekeen doako aplikazio baten bidez, ikastetxearen inguruko informazioa jasotzeko aukera dute. Tomas Maguregi zentroaren zuzendaria da, eta Gaizka Laka irakaslea aplikazioaren egilea eta kudeatzailea.

> *“Aplikazio hau euskaraz izateak garrantzia berezia du guretzat”*

Zer da IURRETA LHII aplikazioa eta zertarako diseinatu duzue?

Tomas Maguregi: Egungo gazteek teknologia berrien erabilera oso barneratuta daukatela kontuan izanda, ikasleekin dauzkagun komunikazio tresnak hobetu eta osatzeko garatu dugu aplikazio berri hau. Horretarako, telefono mugikorrek ematen dituzten aukerak baliatu gura izan ditugu. IURRETA LHII aplikazioarekin, ikasleekin dauzkagun komunikazio bideak zabaltzea espero dugu. Aplikazio horretan, ikasleak, Ikastetxeko informazio orokorra izateaz gain, euren iradokizunak, kezkak eta ideiak jasotzeko erabiltzen dugu, beti ere, ahaztu barik, orain arte izan ditugun komunikazio bide arruntak, hots, tutoreek, irakasleek eta idazkaritzako lankideek ematen dizkietenak.

Beraz, esan daiteke betiko informazioa emateko, teknologia berriez baliatzen zaretela?

Gaizka Laka: Bai hori da, ikasleengan eragin zuzena izan dezaketen gai zehatzak plazaratzeko erabiltzen dugu. Adibidez, bekak eskatzeko epea amaitu baino egun batzuk arinago, mezu bat bidaltzen diegu hori gogorarazteko. Esan behar dugu, aplikazioa, edukietan zein erabileran garatzen ari garela oraindik. Mezuak klase orduetatik kanpo bidaltzen ditugu, klase orduetan abisuaren zaratarekin ez eragozteko.

Zein atalekin osatu duzue aplikazioa?

T. M.: Aplikazioan, esan bezala, ikastetxeko informazio orokorra ikus daiteke, hau da, espezialitate guztietako informazioa, zikloak, edukiak etab., egutegi ofiziala, ideiak jasotzeko txokoa, ikastetxeko gertaera inportanteak, berriak, formakuntza ikastaroak eta Lanbide Heziketako informazioa jasotzen duten web-orri interesgarriak.Abisuen atalean, guk Ikastetxetik luzatutako oharrak jasotzen dira mugikorrak ematen duen bapatekotasuna aprobetxatuz.

Gaizka, nola burutatu zaizu mota honetako tresna bat garatzea?

G.L.: Iaz, Eskolan dagoen lan -talde batean, komunikazioak hobetu ahal genituela planteatu genuen. Ikasleekin dauzkagun harremanak modu eraginkorrago batean kudeatu ditzakegula ikusi genuen. Azkenean gazteek erabiltzen dituzten tresnetara egokitu beharrean gaude, hein handi batean.

Teknikoki, zaila izan da aplikazio hau garatzea?

G.L.: Aplikazioen arloan, erreminta ugari daude mota honetako proiektuak garatu ahal izateko. Guk mobincube aukeratu genuen. Modu horretan, gura duenak doan sortu dezake aplikazio bat.

Zer egin behar da aplikazioa jaisteko?

T.M.: Google Playn dago doan, Androidentzat. Iurreta LHII jarrita, institutuaren ikurra agertzen da, eta oso erraz jaitsi daiteke.

Zeozer gehiago azpimarratuko zenuke aplikazioaz?

T. M. Bai, aplikazioa euskaraz izateak garrantzi berezia du guretzat. Gure ikasketa guztiak euskaraz eskaintzen ditugu, eta asko zaintzen dugu ikasleekin ditugun komunikazio bideak euskaraz izatea. Ikasketa guztiak D ereduan eskaintzen ditugu.

Iurretako Lanbide Heziketako 100 ikaslek jaitsi dute aplikazioa dagoeneko.

Auzo konposta egiteko gunea egokituko dute Indusibide kalean

Azaroan zehar, proiektu pilotu bat abiatuko dute 30 bat bizilagunekin

Indusibide kaleko parke honetan egokituko dute auzo konposterako gunea, datozen egunetan.

OTXANDIO J.Derteano

Azaroan zehar, hondakin organikoekin auzo konposta egiteko proiektu pilotu bat martxan jarriko dute. Indusibide kaleko landa batean, *Letxeriena* lez ezagutzen den eraikinaren inguruan, auzo konposterako gune bat egokituko dute datozen egunetan, eta 30 bat bizilagunek parte hartuko dute auzo konpost egitasmoan, aurretik ikastaro bat eginda. Datorren astean zehar, behin konposterako gunea muntatuta dagoenean, Letxeria inguruan bizi diren herritarrekin hartu-emanetan jarriko dira konposta zelan egin azaltzen duen ikastaroaren egun eta ordua zehazteko.

Herri-ola herrigintza egitasmoko Zero Zabor batzordetik irten den ideia da, eta udalak bidea eman dio. Bere sasoian, ehun bat herritarrek erakutsi zuten konposta egiteko interesa –auzo konposta zein nork bere etxean egitekoa— . Aurten, ezin izan dute proiektu osoa martxan jartzeko diru-laguntzarik lortu. Baina, proiektu estrategikotzat daukate, eta, horregatik, diru -laguntzak eskatzeko epe berria heltzen den bitartean, auzo konpostaren proiektu pilotua abiatzea erabaki dute.

Zaborren prezioak gora

Konposta egiteak, ingurumenaren ikuspegitik ez ezik, arlo ekonomikotik ere garrantzia hartu du azken hileetako jazoeren ostean. Izan ere, Otxandion sortutako zaborra kudeatzeak eragiten duen kostua handitu egin da.

Otxandiok Arabako Gorbea Partzuergoaren bidez kudeatzen du zaborra, eta Gasteizko zabortegi batera eramaten dute. Aurten arte, zabor dena bereiztu barik botatzen zuten han. Orain, Gasteizko udalak zaborra aurretik bereiztera behartu du. Gasteizko beste planta batean egiten den prozesu horrek zaborraren kudeaketa-gastua handitu du. Hori gutxi balitz, planta horrek kudeatzen duen tona bakoitzeko kobratzen duen prezioa igotzeko asmoa erakutsi du. Beraz, sortutako zabor kantitatearen %50 hondakin organikoarena dela kalkulatuta, konposta egitea zaborraren kudeaketa-gastua jaisteko estrategia ere bihurtu da.

Zaborraren kudeaketa garestitzeak udaleko ordenantza fiskaletan arlo horretako tasa gehitzea ekarriko du, seguruenik. Hil honetan egingo dute ordenantza fiskalen udalbatzarra: "Inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin saiatuko gara", dio Urtzi Armendariz alkateak.

Martxan da Mallabiko Berbalagunen bigarren edizioa

MALLABIA J. G.

Berbalagun egitasmoa abiatuko dute, bigarren urtez, Mallabian. Egitasmo honen bidez, euskaldun zahar eta berriak elkarrekin batzen dira, euskara praktikatzeko. Arduradunen arabera, "helburua herritar orori euskaraz bizitzeko eta mintzatzeko aukera eskaintzea da, eta euskararen presentzia gure kaleetan eta gizartean areagotzea".

Talde gehiago sortu daitezkeen arren, aurten talde finkoak izango dira. Martitzenetan, 10:15etik 11:15era, liburutegian batuko dira. Barikuetan, 18:30etik 19:30era, Jubiletxe ondoan elkartzea da asmoa, eta hitzordu honetara umeekin ere joan daiteke. Eguna zehazteko dagoen arren, gurasoentzat Gurasolagun taldea ere elkartuko da, eskolan, astean behin, 16:30etik 17:30era. Izen-ematea doakoa da, eta 639 414 205 telefonora deitu daiteke, edo Mallabiko kultur etxera. *ermua_berba@aek.org* helbide elektronikora ere idatzi daiteke.

Euskaraz bizi gura dutela esango dute berriztarrek, arineketan

Herri-lasterketa egingo dute domekan, 11:30ean hasita

BERRIZ A. U.

Aurten ere, *Euskaraz bizi nahi dut* herri-lasterketa antolatu dute Berrizen, domeka goizerako. Lasterketa 11:30ean hasiko dute futbol zelaian, baina, aurretik, Olakueta plazan jai-giroa igarriko da: 10:45etik 11:15era arte, lasterketan izena emateko aukera egongo da, eta *Euskaraz bizi nahi dut* goiburua duten kamisetak salduko dituzte. Gero, trikitilariekin kalejiran abiatuko dira Berrizburura, lasterketa hasten den lekura. Azken urteotan, berriztar askok parte hartu dute herri-lasterketan; iaz, 150 bat lagun ibili ziren arineketan.

Lasterketa amaitzerakoan, 12:00ak bueltan, ekitaldia egingo dute, Olakuetan. Opariak zozkatuko dituzte, eta luntxa egongo da. Ostean, zumba saioa izango dute bertan.

Iazko lasterketan, 150 bat lagunek parte hartu zuten.

Sahararen aldeko ekitaldiak prestatu ditu udal kontseiluak

BERRIZ A. U.

Aurten 40 urte betetzen dira Espainiak Mendebaldeko Sahara Marokoren esku utzi zuela. Urteurren horren harira, eta akordio hura salatzeko, egitaraua prestatu du Berrizko Udal Kontseiluak. Herrian bertan hainbat ekitaldi egingo dituzte, eta azaroaren 14an Madrilen egingo duten manifestaziorako autobusa ere antolatu dute.

Eguaztenean, azaroak 11, Fronte Polisarioko delegazioko Lih Beiruicek hitzaldia emango du, kultur etxean, 19:00etan. Aurretik, 18:30ean, kontzentrazioa egingo dute Urtiaga plazan, eta Udal Kontseiluak prestatutako manifestua irakurriko dute.

Azaroaren 14an, Sahararen okupazioa salatzeko manifestazioa egingo dute Madrilen. Berriztik, autobusa antolatu dute, eta 07:00etan Kutxabanketik irtengo dira. 18:30ean, gaztainak erreko dituzte, eta gaztain zorroa hartzeko, Elkartasun Karabanarako elikagaiak eroan beharko dira.

Andra Mari jaietako bideoa aurkeztuko dute datorren barikuan

MAÑARIA M.O.

Mañariko Jai Batzordeak aurtengo Andra Mari jaien bideoa aurkeztuko du datorren barikuan, hilaren 13an. Jaietan ateratako argazki sortagaz landu dute bideoa, eta herritar guztiekin elkarbanatu gura dute. 19:30ean hasiko da proiekzioa, udaleko pleno aretoan.

Bideo emanaldiaren ostean, luntxa ere egongo da bertaratzen direnentzat. Garazi Etxebarria jai batzordeko kideak adierazi duenez, herritarrei eskerrak emateko antolatu dute ekitaldia. Izan ere, jaietan herritarren laguntza eskatzen dute: "Herritarrek laguntza ematen dute, eta hau eskertzeko modu bat da".

Oraindik asko falta da datorren urteko andramariak etortzeko, baina batzarra jaiak prestatzen parte hartzeko deia egiteko ere aprobetxatuko dute antolatzaileek.

Liburutegia herritarrengana hurreratuko dute, interneten bidez

IZURTZA J.D.

Izurtzako Udalak liburutegia herritarrengana gerturatzeko euskarri digitala ere erabiliko du. Liburutegia biziberritzea da helburua.

Horretarako, liburutegiaren inguruko blog bat sortzen dabiltza. Bertan, liburutegiaren inguruko informazioa (ordutegiak, kokapena…) eta gaurkotasuna jasoko dute: liburuen arloan zer nobedade dagoen, zeintzuk diren izurtzarren artean irakurrienak… Blog horretarako sarbidea Izurtzako Udaleko webgunean (*www.izurtza.net*) egongo da. Izurtzako liburutegia Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalen barruan dago, eta sistema horretara sartzeko lotura ere eskainiko dute; gune honetan liburuak eskatu daitezke, eta beste liburutegi batzuetan zer dagoen kontsultatu daiteke. Hori guztia azaroan zehar jarriko dute martxan.

“Gure kroketen zaporeak harritu egingo zaitu!”

Croqueta y Presumida etxeak Durangon zabaldu duen dendaz berba egin digu Alex Lasagabasterrek

Alex Lasagabaster da Croqueta y Presumida kroketa dendako arduraduna.

> GASTRONOMIA

Durangaldeko kroketa-maitaleak zorioneko daude. Izan ere, joan zen eguenean, Croqueta y Presumida etxearen denda zabaldu zuten, Durangon, Andra Mari eta Barrenkale batzen diren ingurunean. Kroketa dastatu, eta etxeko sentsazioak datoz oroimenera. Hori da denda honek dakarren bereizgarria: zaporea. Etxean eginiko kroketak dira, egunekoak, eta ez dute kontserbagarririk. Gainera, hamalau kroketa desberdin daude aukeran: barazkiena, txipiroiena, Idiazabal gaztarena, txistorrarena, bakailaoarena, onddoena, espinakena... Lehenengo egunetan, harrera itzela eduki du dendak, eta Alex Lasagabaster arduradunak kontatu dizkigu kroketa eder hauen sekretuak.

Zelan sortu da Durangon denda zabaltzeko ideia?

Hainbat motibogatik. Lehenik eta behin, Durangon ez dagoelako horrelako dendarik. Jendeari asko gustatzen zaion janaria da. Konbentzituta gaude durangarrei ondo jatea gustatzen zaiela, eta gurea kalitatezko produktua da. Egunean egiten ditugu kroketak, kontserbagarririk barik, eta zapore bikaina daukate. Bestalde, leku ezin hobean gaude; Andra Mariko elizaren ondoan egonda, gure artisau-produktuak ondo baino hobeto kokatzen dira.

> *“Konbentzituta gaude durangarrei ondo jatea gustatzen zaiela”*

Esan daiteke desberdina dela zuen produkzio modua, ezta?

Oso zaila da egunero kroketa freskoak ekoiztea; kondizio oneko lantegi bat eduki behar duzu, eta gaitasun logistikoa ere bai. Horrek bereizten gaitu. Gainera, beste batzuek kontserbagarriak botatzen dizkiete, eta hori igarri egiten da zaporean. Durangon, kroketen erreferentzia izan gura dugu.

Hamalau kroketa mota dauzkazue.

Bai. Baina etenbako berrikuntzan murgilduta gaude. Adibidez, antxoa sasoian antxoa kroketa egingo dugu. Orain, barazkiena egin dugu, horren sasoia da eta. Eta Gabonetan, txokolatezko kroketak salduko ditugu. Gorrotxategi pastelgile ezagunak sortu digu kroketa berezi hori. Oso ona dago!

> *“Gabonetan, txokolatezko kroketak salduko ditugu”*

Zuen kroketak jaterakoan, zer aurkituko dugu? Zer da jasoko duguna?

Zapore intentsitate itzela aurkituko duzu. Bexamel oso fina daukate, eta aukeratutako zapore motak diren bezalakoak dira. Onddoena aukeratzen baduzu, onddo zaporea hartuko diozu; txuletarena hartzen baduzu, txuleta zaporea edukiko du. Gure kroketen zaporeak harritu egingo zaitu!

Kroketez aparte, baduzue beste jakirik?

Bai. Prestatutako hainbat plater dauzkagu salgai, uste dugulako kroketaren kontsumoagaz oreka dakartela. Ez ditugu asko, bederatzi soilik, baina guztiak etxean eginikoak eta kalitatekoak.

> *“Onddoena aukeratzen baduzu, onddo zaporea hartuko diozu”*

Zer ordutegi daukazue?

Astelehenetik zapatura, 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:30era zabaltzen dugu, eta domeketan 10:00etatik 15:00etara. Ordutegi zabal hori da gure apustua, eta urte sasoiaren arabera ikusiko dugu aldatu ala ez.

Hamalau zapore daude, eta deneriko errazioak egin ahal dira.

12ko kaxak 5,50 euro balio du, eta 24koak 9,95 euro.

Dendaren inaugurazioan jendetza batu zen.

Jarduera-lizentziaren zerga %85 jaitsi dute ordenantza fiskaletan

Enpresa berriak sortzeko, 13 euro barik euro bi ordaindu beharko da metro karratuko lizentzia

ATXONDO J. D.

Astelehenean, 2016ra begirako ordenantza fiskalak onartu zituzten Gobernu Taldearen aldeko botoekin. Gehienak berdin mantenduko dituzte, 2012tik honako ereduari jarraituz.

Aldaketa bat enpresa berriak sortzeko ordaindu beharreko jarduera-lizentziari dagokio. Inguruko herrietakoa baino askoz garestiagoa zenez, %85 jaitsi dute: 13 eurotik 2 eurora, metro karratuko. Lehen sektorearen kasuan, euro batekoa da zerga.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ere egokitu dute. Zerga orokorra %5etik %4ra jaitsi dute eta 50 urtetik gorako eraikinetako teilatu eta fatxadetako obretan ematen zituzten hobariak kendu dituzte. Baldintza batzuk betez gero, zerga murritzagoa izango da: %2. Dagoeneko egin da dauden etxebizitzetako obrei zuzenduta dago. Horrela, etxe bat berriztu, irisgarritasun neurrietara egokitu zein energia berriztagarriak kontuak hartzeagatik %2 ordainduko da; zerga bera aplikatuko zaie babes ofizialeko etxebizitzei ere.

Azkenik, igerilekurako sarreren astegun eta asteburuko prezioak parekatu dituzte: 4,5 euro; 3,5 euro 18 urtera artekoen kasuan. Orain arte, asteburuetako sarrerak astegunetakoak baino garestiagoak ziren.

Udalak enpresa berriak sortzea lagunduko du jarduera-lizentzia jaitsita.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
EH Bildu

Durango, herri handi, infernu handi

Durango infernu handia da etxebizitza bat topatu gura dutenentzat. Adreiluaren merkatuaren ondorioak durangarrok pairatzen ditugula esango digute sasi aditu eta politikari batzuek. Baina ez da egia. Kudeaketa politikoan ere gabezia, hutsune eta utzikeria nabarmena bizi izan dugu azken hamarkadetan. Horrek guztiak, etxebizitza arloan ere, betiko jauntxoei egin die mesede.

"Jakin eta egin", udal gobernu taldeak jakin badaki etxebizitza publikoak egitea eta eskaintzea negozioa izan dela orain arte. Negozioa, betiko jauntxoentzat. Eta negozio hori iraunarazteko, betiko sistemari eutsi gura diote: etxebizitza jabetzan ematea. Jakin badakiten arren, Durangorako 836 eskari daudela Etxebiden, eta horietako %75 inguru alokairuan etxebizitza bat izateko eskariak direla. Baina, temati jarraitzen dute, jabetzaren aldeko apustua egiten…

"Hazi arazi". Durango haztea, adreiluak jarri eta zementua botatzea da batzuentzat. Jakin badakiten arren, jabetzazko etxebizitzak sobera daudela. Berez, errekorra hautsiko dugu Durangon: Gasteizen ostean, etxebizitza publiko huts gehien dituen herria gara…

Eta hori guztia, "pertsonak lehenengo" jartzen dituen politika egiteko estilo batentzat. Hala balitz, nago, politika aldatuko luketela, eta, adibidez, San Roken dauden 42 etxebizitzak alokairura bideratuko lituzketela…

Azken aukera hori mahai gainean jartzeko, udal gobernuari batzarra eskatu diogu. Alegia, Durangoko lurretan eta durangarrek ordaindutako 42 etxebizitza huts horiek durangarrei alokairuan eskaintzea.

Euskara edo musika ikasteko laguntzak emango dituzte

IURRETA A.B.

Udal kirol instalazioetan norberak kirola egiteko, musika zein euskara ikastaroak egiteko, eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eskainitako ikastaroak egiteko diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Iurretako Udalak. Erregistro Orokorrean (Bidebarrieta kalea, 5), edo Ibarretxe kultur etxean aurkeztu daitezke eskabideak, abenduaren 4a artean.

Euskararen zein UEUko ikastaroen kasuan, matrikularen erdia ordainduz lagunduko dute. Kirola egiteko zein musika ikasteko, azpiegitura dagoen herri horretan erroldatuta ez egoteagatik ordaindu beharreko aldeari egingo zaio aurre.

Epaiketa politikoak gaitzetsi ditu udalak

Herriko tabernen eta Askapenaren kontrako auziak kritikatuz, mozioak onartu dituzte

ZALDIBAR I.E.

EH Bilduko eta EAJko zinegotzien aldeko bozkekin onartu zituzten, joan zen egueneko udalbatzarrean, Herriko tabernen eta Askapenaren kontrako auziak gaitzesten dituzten mozioak. Kontrako bozkatu zuen, aldiz, PSE-EEko ordezkariak.

Batetik, ehundik gora herriko tabernagaz batera Zaldibarko Castet ere bahitzea agindu duen epaia kritikatzen dute. Bestetik, 28 urtez internazionalismoaren arloan lan egin duen Askapena elkartearen kontrako prozesu judiziala gaitzetsi dute.

Herriko tabernen kontrako "makroepaiketa politikoak amaitzeko" eskatzen dute EH Bilduk eta jeltzaleek, "egungo testuinguru politikoan lekurik ez" dutela argudiatuz. Elkartasuna agertu diete "Castet Elkarteko langile eta kideei", eta absoluzioa eskatu dute Askapenako Walter Wendelin, Gabi Basañez, Unai Vazquez, Aritz Ganboa eta Dabid Sotorentzat.

Aurretik, beste hainbatetan bezala, gai bi hauen inguruko alderdiaren irakurketa politikoa egiten zuen idatzi bana aurkeztu zuten EH Bilduk eta EAJk, udaleko Ongizate Batzordera. Kasu honetan, baina, testu bat adostea lortu dute, batzordean gaia landuta.

Bertso afarirako izena emateko aukera eman dute dagoeneko

GARAI M. O.

Azaroaren 21ean, bertso afaria egingo dute, Garain, udalak eta Trumoitte kultur elkarteak antolatuta. Beñat Ugartetxea mallabiarrak eta Onintza Enbeita muxikarrak (Bizkaia) kantatuko dute saioan, eta dagoeneko badago izena emateko aukera, udaletxera deituta (94 681 63 93). Hilaren 16a izango da izena emateko azkeneko eguna, eta interesdunek 17 euro ordaindu beharko dute.

Bertsozaleak 21:30ean elkartuko dira, Otea-Loran elkartean, eta lehenengo, afaldu egingo dute. Otordu horren ostean hasiko da Ugartetxearen eta Enbeitaren arteko bertso saioa.

Lau urterako Gobernu Plana osatu gura dute

Legealdirako plana egiteko, beharginen, elkarteen eta herritarren ekarpenak jasotzen hasi da udala

De Castro, Buruaga eta Dominguez, udaletxeko atarian.

ELORRIO Markel Onaindia

Elorrioko Udalak datozen lau urteetarako Gobernu Plana osatu gura du, eta, horretarako, udal beharginen, elkarteen eta herritarren ekarpenak jasotzen hasi da. Hain zuzen ere, batzarretarako deialdia egiteko, martitzenean prentsaurrekoa eskaini zuten EH Bilduko gobernu taldeko Idoia Buruagak eta Xabier Dominguezek, eta Irantzu de Castro parte-hartzerako teknikariak.

Amestutako Elorrio Egin goiburupean garatuko dute prozesua. Gestioan aldaketa bat ekarriko du planak; izan ere, udalek urteko aurreikuspenen arabera lan egiten dute normalean, eta Elorrioko kasuan, lau urteko perspektiba eman gura diote. Buruaga: "Urteko aurrekontuak plangintza baten baitan egon behar du". Edozelan ere, urteko aurrekontua lantzerakoan ere, herritarren iritzia ezagutuko dutela dio Buruagak. Gainera, gainerako udal taldeak parte hartzera gonbidatu ditu: "Elorriok irabaziko du, denon artean eginez gero".

Auzoetan hiru batzar egingo dituzte, hiruak 18:30ean. Hilaren 10ean izango da Gazetan, Aldape, Berrio, Iguria eta Urkizuaraneko bizilagunekin batera. 12an Miotan Batuko dira, Berriozabaleta eta San Agustinekoekin elkartuta. 19an Argiñetan burutuko da, eta Zenita, Mendraka, Gaztañeta, Lekeriketa eta Araunetakoak ere gonbidatuta daude. 17an egingo dituzte herriguneko batzarrak, 14:30ean eta 18:30ean, Iturrin.

Batzorde berezi batean aztertuko dute txosnak eta barrakak non ipini

ELORRIO M.O.

Aspalditik datorren gaia da txosna eta barraken kokalekuarena, eta udalak jarraipen batzorde berezi batean konpondu gura du. Udaleko alderdietako ordezkariez gainera, auzokideak eta txosnetako kideak ere gonbidatuko dituzte batzorde horretara, Idoia Buruaga alkateak adierazi duenez. Hurrengo urteetarako aukerak aztertuko dituzte guztien artean.

Auzokideek urteak daramatzate txosna eta barraken kokalekua aldatzeko eskatzen, zaratagaz gogaituta daudelako. Aurreko udal gobernuak kokalekua aldatzeko berba eman zien, baina Buruagak dioenez, EH Bildu gobernatzen hasi denetik, ez dute asti nahikorik eduki aldaketa aurten gauzatu ahal izateko. Hala ere, txosna eta barraketan neurri berriak ipini dituztela esan du Buruagak, eta, aurten, inoiz baino kexa gutxiago egon dela.

Duela aste pare bat, udalaren eta auzokideen arteko batzarra egin zuten, eta dozena bat herritar agertu ziren. "Auzokideek esan ziguten lehen aldia zela batzarrera deitzen zituztela, eta ondo baloratu zuten", esan du alkateak. Alde guztien arteko jarraipen batzordea izango da hurrengo pausoa; oraindik ez dute datarik ezarri.

Trinket atzeko lursaila proposatu du alkateak ortu sozialen kokaleku

ABADIÑO I.E.

Ortu Sozialak martxan ipintzeko elkartzen hasi den herritar taldeak jakitera eman duenez, talde horren ordezkariekin joan zen astean izandako batzarrean egin zuen Jose Luis Navarro alkateak proposamena: ortuak trinket atzeko lursailean kokatzea. "Udalak proiektuarekiko oztoporik ez jartzea eta denona den lurra eskaintzea aurrerapausoa" dela nabarmendu du Ortu Sozialen Taldeak.

Gobernu taldeak proposatu bezala, ortuak ipintzeko proiektuagaz aurrera jarraitu ahal izateko, eskaera aurkeztuko dute, datozen asteetan, udalean.

Alkatearen proposamenaren aurrean zer jarrera hartu erabakitzeko elkartu ziren, martitzenean, Ortu Sozialen Taldeko 18 eta 50 urte arteko hamar abadiñarrak. Gobernu taldeak proposaturiko trinket inguruko lursail hori ortuetarako erabiltzeko, araudi bat lantzen dabiltzala aurreratu dute, eta eskariagaz batera aurkeztuko dutela udalean.

> Araudi proposamenagaz batera aurkeztuko dute ortuak ipintzeko eskaria, Ortu Sozialen Taldekoek

> DURANGALDEA ASTEON

Neska dantzarien saioa, zapatuan

DURANGO > Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeek antolatuta, Bizkaian Emakumeak Dantzari ekitaldia egingo dute zapatuan, 18:00etatik aurrera, Andra Mari elizpean. Talde antolatzaileez gain, Abadiñoko Iluntze, Mañariko Andra Mari eta Sestao eta Algortako dantzariak izango dira.

'Bidaiak eta mendia' zikloa

ZALDIBAR > Azarorako, 'Bidaiak eta mendia' hitzaldi zikloa antolatu dute Zaldibarko Liburutegian: azaroaren 11n, Andoni Rodelgo ermuarrak bere familiarekin 10 urtez bizikletaz egindako bidaiak kontatuko ditu, eta hilaren 17an, Pou anaiak etorriko dira. 18:30ean izango dira solasaldiak.

Azaroko iPad-a, K&M lleak dendan

DURANGO > *Salerosketak be euskeraz* ekimeneko azaroko IPad-a 564.409 zenbakidun txartelak lortu du. K&M kosmetiko dendan banatu dute txartel hori. Ordezko zenbakia, berriz, Donna arropa dendan banatu dute, eta 550.683 zenbakia da.

Iritzia

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9,
48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa
• helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

-**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

Berbaz

Daniel Moro (Oviedo, 1983) | Carmelo Bernaola konpositoreari buruz egin du doktoretza tesia

“Pasio-gizona zen, bizizalea, ez zen konbentzionalismoen lagun ”

‘Otxandio bihotzean. Diálogo en torno al compositor Carmelo Bernaola’ hitzaldia emango du, Otxandion

> BERBAZ Aitziber Basauri

Carmelo Bernaolaren (1929-2002) nortasuna, moldaerraztasuna, eta Otxandiogaz zuen lotura izango ditu hizpide Daniel Morok. Konpositorearen ofizio-zabaltasuna eta musikari egindako ekarpenak azalduko ditu; pasodoble errazenetik sinfonia konplikatuenera sortzeko gai omen zen. Bihar, kultur etxean, 19:00etan.

Zergaitik Carmelo Bernaola?

XX. mendeko konpositoreei eta 51ko Belaunaldiko —1924 eta 1938 artean jaioak— musikagileei buruzko ikasketetan aitzindari da Oviedoko unibertsitatea. Ikasketok zabaltzen aitzindari izan zen Angel Medina bera, tesiaren zuzendari izan dudana. ‘Abangoardiako musika Madrilen’ landu zuen tesian (1985), eta 51ko Belaunaldiari eta ondorengoei buruzko ikerketa desberdinak sortu ziren. Bernaolaren kasuan, hainbat alderdi zeuden ikertzeko. Adibidez, nazioarteko beste autore batzuengan izan zuen eragina. Bere obra azaltzeko, metodologia definitu batean oinarritutako analisi transbertsala ere falta zen.

Hori islatu gura izan duzu.

Bai. Kontzertu-musika edo musika akademikoagaz lotutako bere obran, loturaren bat zein teknika komunak aurkitzea falta zen. Ondoren, bai Madrilen bai Italian —1960-62an han ikasi zuen— izan zuen eragina ere aztertu ditut. Italian, batez ere, hiru pertsonek izan zuten berarengan eragina: Goffredo Petrassik, Bruno Madernak eta Sergiu Celibidachek. Horiek Bernaolaren musikan nola eragin zuten jasotzea falta zen, eta eragin hori bere musikan nola islatzen den.

Musikan modernitatea definitu zuen 51ko Belaunaldiak.

Bai. 50eko eta 60ko hamarkadetan garatu ziren konpositore hauek. Gerra Zibila amaituta, autarkian, musika nazionalista sustatzetik, Europako errepertorioa hobeto ezagutzera egingo dute saltoa urte horietan. Dodekafonismoa eta serialismoa zabalduko dira 50eko hamarkadan; eta, 60koan, musika irekia, malgua. 51ko Belaunaldikoek bideratu zuten Espainiako musikaren aldaera hori. Musika berria ezagutzera emateko ahalegina, ia lan heroikoia aitortu zaie .

Jauzi handia egin zuten?

Aitzindari izan ziren musika berria ezagutzeko bideak zabaltzen. Bitarteko lana bete zuten: batetik, musika irekiari edo dodekafonismoari adskribatutako obrak sortuz, eta, bestetik, hizlari moduan. Madrileko Ateneoko Musika Aretoan kolaboratzen zuten Bernaolak eta beste musikagile batzuek, konpositore garaikide edo korronte berriei buruzko hitzaldiekin.

Madrilera oso gazte joan zen arren, Bernaolak beti izan zuen gogoan Otxandio.

7-8 urtegaz jaso zituen solfeoaren hastapenak, Sergio Olasoren eskutik. Lehenengo maisua izan zuenaren alabagaz, Pilar Olasogaz, hitz egin dugu tesirako. Konpositoreak sukaldaririk kutunena izan zuenagaz ere egon gara: Mª Jesus Azkorbebeitiagaz. Prentsak ere jaso zuen lez, berak eman zion azken bazkaria Bernaolari: patata lebatzagaz, saltsan. Otxandiotik Madrilera joan zen propio horretara, 2002ko ekainaren 5ean. Hunkigarritasunagatik da datu esanguratsua. Elkarrizketa hauek Itziar Larrinagak egin ditu.

> *“Bitxia da ‘Verano Azul’-en bi minutuko sintoniagaitik gogoratzea”*

> *“Bernaolaren musika akademikoaren katalogoa 142 obrek osatzen dute”*

Urteak pasatu ziren Otxandiora bueltatu arte...

Aitari jarritako salaketa baten eraginez, eta gerra zibilagatik joan zen familia osoa, 1937an. 40 urte pasatu ondoren bueltatu zen lehenengoz, 70eko hamarkadaren bukaeran. Gero, maiz etorri zen. Madrilen, pelikula baterako musika grabatzen ari zela, Otxandioko kanpaiak entzuteko deitzen zuela ere esan zigun Azkorbebeitiak.

Abesbatzetarako ere asko konposatu zuen.

Tolosako Abesbatzen Lehiaketan epaimahai jardun zuen, eta Euskal Herriaren musikaltasunerako bertutea nabarmendu zuen beti; kantuarekikoa bereziki. Lan asko sortu zituen abesbatzentzat, adaptazio asko ere bai. Oso garrantzitsuak diren bi erlijio-kantata ere baditu: *Negaciones de Pedro* (1975) eta *Las siete últimas palabras de Jesús en la cruz* (1984). Gutxi ezagutu arren, oso garrantzitsuak dira.

Antzerkirako, zinemarako eta telebistarako ere hainbat obra sortu zituen. ‘Verano Azul’ telesailaren musika, tartean.

Bai. Gainera, horrexegatik ezagutzen dute denek. Bitxia da. *La Clave* programaren musika ere sortu zuen, eta Athleticen ereserkia. Berez, moldatu egin zuen ereserkia, 1983an. Egia esan, orkestratu egin zuen, eta nahiko aldatu zuen. Horregatik gogoratzen dute askok. Bere izaeraren erakusle da hori: abanguardista profil horretatik oso urrun. Ez zen inoiz teorikoa, akademizista izan. Beti lotu zuten gehiago herri mailagaz. Pasio-gizona zen, bizizalea, ez zen konbentzionalismoen lagun, ezta termino teorikoetan berba egitekoa ere.

Horrek eragin du herri mailan ezaguna izatea?

Bai, musika horiengatik da batez ere ezaguna, baina, Bernaolaren musika akademikoaren katalogoa 142 obrek osatzen dute, kontzertu-aretoetarakoak direnak. Batzuk formatu handikoak, ordu erdi irauten duten aipatutako bi kantatak, adibidez. Nabarmentzekoa da hiru sinfonia idatzi izana ere bai. Bitxia da *Verano Azul* telesaileko bi minutuko sintoniagatik gogoratzea.

Medioen boterea...

Bai! Prentsan ere hainbat elkarrizketa egin zizkioten, eta beti puztu dute profil hori: gastronomiarekiko, futbolarekiko, eta edariarekiko zuen zaletasuna. Herriari oso lotuta zegoen, musikari abangoardistaren topikotik oso urrun.

Hainbat sari jaso zituen.

Makina bat. Adibidez, Espainiako Sari Nazional bi (1962 eta 1992an), Meritu artistikoari domina (1993) eta Fundación Guerrero saria (2001) musika-aretoetarako sortutako musikagaitik. Zinean egindako lanagaitik Zinematografia Sari Nazional bat edo Goya Saria (1989).

Kultura

“Urtebete baino gehiago daramagu lanean; egindakoa erakusteko gogoa daukagu”

‘Pintto Pintto’ estreinatuko du, bihar, Miren Larrea zornotzarra kide duen Anita Maravillas taldeak

Galdu egin den Pintto izeneko txakurkumearen istorioa da ‘Pintto Pintto’ obrakoa, laguntasunari buruzkoa.

> ANTZERKIA Itsaso Esteban

Zornotza Aretoan estreinatuko dute, bihar, Miren Larrea zornotzarraren eta Valentina Raposo txiletarraren Anita Maravillas taldearen ikuskizun berria. *Pintto Pintto* da antzezlanaren izenburua, eta Portal 71 taldeagaz elkarlanean ekoitzi dute.

Galduta dagoen Pintto izeneko txakurkumearen istorioa da, ume zein helduentzako prestatu dutena. Anita Maravillas konpainiak ohi duen eran, tailerrean hasitako lana da *Pintto Pintto*. Pertsonaiaren txotxongiloaren diseinuagaz abiatutakoa. Oso pozik daude egileak emaitzagaz: “Panpin bat izanda, bizitasun handiagaz eta modu naturalean mugitzen da Pintto, eta oso erakargarria da: ume guztiek gura dute ikutu, denek egiten diote berba”, dio Larreak.

Estreinaldiari begira, “urduritasun puntu bategaz, baina pozik eta gogotsu” daude, Miren Larrearen berbetan: “Urtebete baino gehiago daramagu lanari bueltak ematen, eta egindakoa erakusteko gogoa daukagu”.

Pintto Pintto sortu duen lantaldeagaz oso eskertuta agertu da, estreinaldiaren atarian, Miren Larrea. “Oso pozik gaude, lantalde oso kreatiboa bildu dugulako proiektura, eta oso ondo ulertu dugulako elkar”, azpimarratu du antzerkigile zornotzarrak. Ivan Alonsok eta Jabi Renobalesek zuzendu dute lana, eta Fran Lasuenen musika, Iñaki Ziarrustaren eszenografia, eta Ion Chavezen argiztapena dauzka.

Lehenago ere, Zornotza Aretoan egin izan ditu Anita Maravillas konpainiak bere lanen estreinaldiak. Oraingoan ere “Zornotza Aretoaren baliabideak eskura izatea gozamena eta aukera paregabea izan da, lana prestatzeko. Babes hori barik, ezinezkoa litzateke lana gauzatzea”, Larrearen berbetan.

Bartzelonan sortu zuten Anita Maravillas konpainia, duela 9 urte: Bartzelonako Raval auzoko txotxongilo tailer batean ezagutu zuten elkar Miren Larreak eta Valentina Raposok; elkarregaz lanean jarraitu dute, ordutik. Zornotzan, orain.

Perlak eta Norte Apache taldeak ariko dira Kantuaren Kantoian

Datozen bi eguaztenetan, 19:30ean izango dira Durangoko Plateruenekо emanaldiak

> MUSIKA I. E.

Perlak laukote zarauztarrak eskainiko du Durangoko Plateruenekо Kantuaren Kantoia berbaldi musikatuen zikloko lehenengo emanaldia, azaroaren 11n, 19:30ean. 2013an sorturiko taldea da Perlak, eta, maiatzetik, Napoka Iriako Miren Narbaiza kide berria du. Euren kantak eta taldearekin zerikusia duten bideoak ekarriko dituzte, Durangoko Plateruenekо solasaldian tartekatzeko. Kantuaren Kantoia ekimenaren aurreko edizioetan bezala, Jonan Hernandez kazetariaren galderek gidatuko dute solasaldia. Hainzuzen ere, Perla taldekoek diote “publikoarengana hurbildu eta betiko kontzertuen formatutik ateratzeko modua” delako, gogotsu hartu zutela Kantuaren Kantoiaren proposamena.

Urte eta erdi daramate lehenengo diskoko kantak zuzenean eskaintzen, eta aurreratu dutenez, laster, kontzertuen martxa jaitsi, eta bigarren diskorako buruan darabiltzaten ideiei forma ematen hastea dute asmoa.

Post-punkaren arloan kokatzen du Perlak taldeak bere burua, eta, eragin bezala, The Cure, Joy Division, New Order, edo Siouxsie & the Banshees modukoak aipatzen dituzte.

Norte Apacheren errimak

Rapak beteko du, bestalde, Plateruenekо Kantuaren Kantoiaren bigarren hitzordua. Norte Apache hirukotea gonbidatuko dute, azaroaren 18an, 19:30etatik aurrera, Plateruenekо Kantuaren Kantoira. Zikloaren aurreko edizioetan beste hainbat artistak bezala, euren sorkuntza metodoez, eraginez, eta esperientziez berbaz ariko dira hip-hoplariak, eta kantak eskainiko dizkiete doako emanaldira bertaratzen diren entzuleei.

Entzulego gaztea erakarri gura dute Plateruenekо Kantuaren Kantoiaren antolatzaileek. Horregatik, ikuslego horren gustukoa izan daitekeela uste duten kartela osatu dute, Euskal Herrian post-punka eta rapa egiten duten gazteak gonbidatuta.

Urte eta erdi darama Perlak laukoteak, taldearen lehenengo diskoa kontzertuetan eskaintzen. Ion Iraundegi

Norte Apache hirukotearen hip-hopa izango da bigarren hitzorduan.

Bartzelonako Berlinist boskotea gonbidatu dute Berrizen jotzera

Azaroaren 7an, 20:00etan, joko du Berlinist taldeak, Berrizko kultur etxean

> MUSIKA Itsaso Esteban

Aurreko egunean Madrilen aritu ostean etorriko dira Berlinist taldeko bartzelonarrak, bihar, 20:00etatik aurrera, Berrizko kultur etxean jotzera. Taldekideek eurek azpimarratu dutenez, 2013an *Landscapes* diskoa kaleratu zutenetik, "atzetik jarraika" izan dute Berrizko kultur etxea, gonbidapenagaz.

'The winter hexagon' izena du Berlinist Bartzelonako taldeak, bihar, Berrizen, aurkeztuko duen diskoak

Wim Mertens, Sigur Rós edo Yan Tiersen aipatzen dituzte taldekideek euren musikaren influentziatzat

Pianoa, harmoniuma, txeloa, perkusioak eta ahotsa dira boskotearen instrumentuak.

The winter hexagon izena du bihar Berrizko kultur etxeko zuzenekoan eskainiko duten diskoak. Ambient, folk, elektronika eta pop musiken uztarketatik sorturiko hamar kanta biltzen ditu Berlinist taldearen disko horrek, eta zuzenean eskainiko dituzte, Berrizen.

Pianoa, harmoniuma, txeloa, perkusioak eta ahotsak dira Berlinisten musikan protagonismo gehien duten elementuak. Wim Mertens, Sigur Rós edo Yan Tiersen aipatzen dituzte Berlinist taldekoek euren musikaren influentziatzat.

Liburu berriez jardungo da Andoni Urzelai

Azaroaren 12an, Hitz Liburudendan da hitzordua

> LITERATURA I. E.

Aurten kaleratu dituen bi liburuez ariko da Andoni Urzelai, azaroaren 12an, Durangoko Hitz liburudendan. Gaztelaniaz kaleratu duen *Demencia* eta euskaraz idatziriko *Karanbola toxikoak* liburuak aurkeztuko ditu, aspaldi Durangon bizi den aretxabaletarrak. Telebistako zuzendaria eta errealizadorea da Urzelai lanbidez, eta idazlea afizioz. Aurretik, 2002an eta 2004an, *Haginkadak* eta *Zirkulua* argitaratu zituen.

Joan zen astean aurkeztu zuen Urzelaik, Susa argitaletxeagaz plazaratu duen *Karanbola toxikoak*. Hamazazpi ipuin dira, bizitzea tokatu zaien bizitzarekin konforme ez dauden pertsonaiak protagonista dituen "errealitatearen kontakizun bihurria".

'Karanbola toxikoak' liburuaren azala.

Jazzagaz jolas eginez hasi dute Iurretako Musikaldia

Kontzertu didaktikoen saio bi egin dituzte, gaur

> MUSIKA I. E.

Jazz musikari esperientziadunek gidaturiko Jolasjazz kontzertu didaktikoekin abiatu dute Iurretako Musikaldi, gaur. Datozen asteetarako, beste bi hitzordu ere badakartza Iurretako musika jaialdiak.

Datorren barikuan, azaroaren 13an, Gehi Zazpi eta 4KOTE talde emanaldia izango da, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Bolero ezagunen bertsioak eskainiko dituzte Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan sortutako taldekoek. Hamabi abestiko errepertorioa dute prest. Bestek beste, *Bésame mucho*, *Contigo aprendí*, edo *Quizás, quizás, quizás* kantak eskainiko dituzte, esaterako.

Amaitzeko, Kherau

Bizkaiko hainbat herritako musikariak elkartzetik sorturiko Kherau taldea izango da Iurretako 2015. urteko Musikaldia itxiko duena. Euskal tradizioko doinu eta berbak sorkuntza berrien oinarri hartzen ditu boskoteak, eta instrumentu zerrenda luzea baliatzen dute: kutxa, djembea, perkusioak, baxua, txirula, alboka, gitarra, bouzuki irlandarra, mandolina eta trikitixa, kasurako.

GEURE DURANGALDEA

JON ANDER URKIAGA
Irakaslea

Anboto

Beharbada azken zutabean idatzi beharrekoa da gaurko prestatu dudan hau, baina orduko hartan gaurkotasunak Durangaldetik harago eraman ninduen. Oraingoan, ostera, etxean geratuko naiz.

Etxean. Urte bi bertan lanean ibili eta gero, udako oporren ondoren ez naiz Anbotora itzuli, eta, behartuta ez nagoen arren, badut beharra, segur aski, gutxiegitan jasotzen diren esker on hitzak helarazteko. Durangaldeak behar du Anboto; euskarak behar du Anboto. Izan ere, euskaldun izateko leiho bat dugu gure astekaria, errepideetako autoen ke itxitik ihes egin, eta arnasa sakon hartzeko aukera.

Eta euskaraz bizi nahi dugunon lurralde txikiegi honetan normalizazio kutsu bat landatzen norbanakoz osaturiko lantalde bat dagoela ezin ahaztu. Hilerik hile proiektu duin bezain nahitaezko hau aurrera eramaten duen lantalde nekagaitza. Izen-abizena duten kazetari, zuzentzaile, administratzaile, maketatzaile eta publizistak. Euskaraz bizi nahi horretan gabiltzanoi aurrerako bidean astero-astero beste pauso bat ematen laguntzen diguten beharginak.

600. alea erditu berri, beste horrenbeste astean segi dezala Durangaldeko politikarien, kirolarien, sortzaileen eta herritarren berri ematen 24 orrialdetan barrena. Euskaraz.

Marik urte luzetan jarrai dezala ostiralero-ostiralero sagardo upeletatik txakolina ateratzen. Biba zuek!

EDERTASUN GIDA

Jon Sopelana. Iunik.

Kultura kolorea ematearen abantailak

Durangoko Iunik ile-apaindegiko Jon Sopelanak ileari kolorea eta distira emateko teknika bat du berbagai, aldi berean ilea babesteko balio duena.

Ileari kolorea emateko teknika berri bat dakarzu, ezta?
Koloreagaz ilusioa berreskuratu dugu, eta batez ere kultura koloreagaz. Bi urte daramatzagu kultura koloreagaz lan egiten, eta emaitzak oso onak dira. Minik bako edertasunean oinarritzen da.

Zein abantaila dauzka teknika horrek?
Ilea apaintzen hasi nintzenetik, koloreagaz aldi baterako distira lortzen genuela ikusi izan dut. Beste efektu batzuk ematen genizkion ileari, baina bizitasuna kentzen genion. Urteak joan ahala, ez zen lortzen kalitaterik. Orain, buztinekin eta kultura koloreagaz, ilea nabarmen desberdintzea lortzen dugu. Ukimenean desberdina da, eta denbora gehiagoz mantentzen da garbi ilea. Distiragaz, berdin; argitu egiten da, baina kolorea galdu barik. Gainera, ile bakoitzak bere izaerari eusten dio, eta ez da kolore uniforme bat sortzen. Ilea hidratatu egiten da, eta kanpoko eraginetatik babesten du.

ILE-APAINDEGIAK

ESTETIKA ZENTROAK

Profesionalik onenak zure zerbitzura!

“Sortzera bultzatzen nauen hori ikertzea interesatu zait beti”

‘Lekuak eta bilbeak’ berbaldia eskainiko du Javier Vallhonrat argazkilariak (Madril, 1953), azaroaren 14an, Durangoko Arte eta Historia Museoan. Azaroaren 10ean hasiko den Begira Photo jaialdiak gonbidatuta etorriko da.


Argazkia: Pablo Vallhonrat.

> ARGAZKIGINTZA I. Esteban

Zeren inguruan ariko zara ‘Lekuak eta bilbeak’ izenburuko Durangoko berbaldian?

Gizakiak, inguratzen duen naturagaz duen harremana da azken aldian egin ditudan argazki askoren protagonista. Naturagaz neuk daukadan harremana, eta gizarte ultra-teknologiko honetan sumatzen dudana izango dira nire gogoetaren ardatza. 1999. urtetik gaur arteko nire sorkuntza, bost proiektutan gauzaturikoa, hartuko dut ardatz moduan. Bestalde, nire lanaren atzealdean dauden trama eta korapiloez ere ariko naiz.

Arte Ederretan eta Psikologian lizentziaduna zara. Zer eragin du arlo bakoitzak zure obran?

62 urte dauzkat, eta 55ekin hasi nintzen psikologia ikasten. Ikasteko irrikaz bizi naiz. Arlo biek badute loturarik: artistok, psikoterapeutek bezala, geure burua hobeto ezagutzen laguntzen diguten barruko tramak ezagutzea bilatzen dugu. Sortzera bultzatzen duen barne-dimentsioagaz kontaktuan egoten da artista. Inor ez da artista komenientziak bultzatuta. Artista gara ez dakigulako beste gauza bat

> *“Geure barnekoari zintzoki begiratzeko balio behar luke argazkigintzak”*

izaten, eta barnean obsesio edo beharrizan bat dugulako. Psikoterapeutak bezala, artistok ere geure ezkutuko barne munduetan murgiltzen gara. Sortzera bultzatzen nauen hori ikertzea interesatu izan zait beti.

Argazkigintza ezezik, zure ibilbidean pintura, bideoa, instalazioak, performance-a, etab. ere baliatu izan dituzu.

Bai, horrela da. Hasi nintzenean, nire belaunaldian, argazkilaritza mota, zelanbait, “puristagoa” zegoen zabaldua, tradizioari lotuagoa. Baina niri argazkigintza “hibridoagoa” interesatzen zitzaidan: ezarritakoaren erlatibitatea azaleratzen duten begiradak lantzea. Argazkilaritza da nire adierazpide nagusia, baina, arlo horretara mugatu barik, uste dut neure buruaz gehiago ikasi dudala. Erakusketetan, esaterako, testuen bitartez azaltzen ditut, sarritan, hainbat kontu. Edozelan ere, emozioarekin zerikusia duten loturak eginez, ikusleak sortzen du obraren esanahia.

Gustuko duzu ikusleagaz harreman zuzena edukitzea?

Bai, oso positiboa deritzot. Eskaini ditudan berbaldietan eta tailerretan, nire obraren atzean dagoen pentsamendua ulertzeko interesa zeukan jendea topatu izan dut beti. Uste dut bizi dugun irudien saturazio garai honetan, beharrizana dugula gauzak ulertzen saiatzeko, ez dugu ikusgarritasuna bakarrik nahi, artearen motibazioetara ailegatu gura dugu, lanaren atzean dagoen pertsonarenganaino. Egia da baita, horrek *show*-tik ere baduela, baina, bestalde, sakonagoak diren dimentsioetara ailegatzeko aukera ere izan daiteke.

Gogoetarako ez dugu, baina, tarte askorik hartzen...

Uste dut teknologiagaz kritiko ez izatearen ondorioak jasaten gabiltzala. Gauza harrigarri eta ikusgarrien bila ibiltzen gara argazkigintzan ere, egunerokotasunetik aldentzen gaituzten gauzen bila. Badirudi internet ihesbiderako pasaporte bat dela, eta nobedadeen kontsumitzaile hutsak gu. Geure buruarengandik, geure barnetik aldentzen gara horrela. Egunerokotik ihes egiteko barik, geure barnekoari zintzoki eta sakontasunez begiratzeko balio behar du argazkigintzak. Asko gara, bestalde, sakontasuna, poesia eta pentsamendua lantzen diharduten argazkilari garaikideak: ikuslea bere barne munduagaz harremanetan jartzera bultzatu gura dute argazkilari gazte askok.

Gizakiaren eta naturaren arteko harreman gaitzaren metafora

“Jakinmina, intriga” eragin gura izaten du Vallhonratek bere argazkiekin

Javier Vallhonraten ‘Interacciones’ izeneko proiektuaren barruko argazkia.

Gizakiaren eta naturaren arteko harremanen metafora bat da testu honen ondoko argazkia. Javier Vallhonrat argazkilariak 2011 eta 2015 urteen artean burutu duen *Interacciones* izenburuko proiektuaren barrukoa. Mundu teknologiko honetan, naturagaz daukagun harreman zailari buruzko gogoeta dago proiektu horren muinean, eta, besteak beste, Pirinioetako glaziarretan, Islandian edota Argentinako Tierra de Fuego uhartedian garatu du. Durangoko Begira jaialdiko berbaldian, proiektu horren inguruan mintzatuko da.

Inguru latzean, behelainotan, agertzen den alboko argazkiko gizonarena bezalako irudiekin “jakinmina, intriga” sortzen saiatzen dela azaldu du Vallhonratek, eta ikusleari modu aktiboan jardutea eskatzen diola. Ikuslearen parte-hartzea bultzatzen du argazkilari madrildarrak: artistak emandako arrastoetatik abiatuta, ikusitakoaren interpretazio propioa egingo du ikusleak. “Helburua ez baita ikuslego pasibo bati irudi ikusgarriak eskaintzea”.

Sari garrantzitsuak

Urteetan egin duen lana goraipatuz, sari asko eta oso garrantzitsuak eman dizkiote Javier Vallhonrati. Espainiako Argazkilaritzako Sari Nazionala jaso zuen, esaterako, 1995. urtean. Photo España jaialdiko, zein bizi den hiriko, Madrilgo, argazkigintzako sari nagusiak ere eman dizkiote.

Durangoko Begira Photo jaialdian, *Argazkigintza pentsatu* sailaren barruan eskainiko du Vallhonratek hitzaldia. Argazkigintza eta pentsamendua lotzea “oso aproposa” dela uste du: “Pentsamendua, sarritan oso sakona, baitago argazkigintza garaikidearen atzean”. Begira Photoren gonbidapenak ilusio handia egin diola ere azpimarratu du, izan ere, familiaren parte bat bilbotarra du, eta lotura emozional estua du Euskal Herriagaz.

Kirola

Jon Apraiz (Eibar, 1987) | Amorebieta futbol taldeko jokalari ohia

"Nire moduan futbola utzi behar izan duten lagunekin asko akordatu naiz"

Joan zen denboraldi amaieran, Amorebietako jokalari zela, futbola uztea erabaki zuen Jon Apraizek, bihotzeko arazoengatik

Apraiz, duela aste bi Urritxen egin zioten omenaldian. Jon Iglesias

> FUTBOLA Markel Onaindia

Duela hilabete batzuk, hainbeste maite zuen futbola uzteko eskatu zion bere bihotzak Jon Apraizi (Eibar, 1987). Ondoezik sentitu zen, eta proba batzuk egin ostean, medikuek futbola uzteko gomendatu zioten. Eibarren hazi zen futbolari lez, eta Lemoa, Sestao eta Amorebieta taldeetan ibili zen gero. Zornotzako taldean amaitu du bere ibilbidea, eta, horregatik, Urritxen omenaldia egin zioten duela aste bi. Bertan bizitakoa, lagunak eta futbola, bihotzean gordeko ditu.

Zelan bizi izan zenuen Urritxeko futbol zelaian jasotako omenaldia?

Oso polita izan zen. Apur bat arraroa ere bai, zeren uste dut nik ez dudala ezer berezirik egin horrelako zerbait merezi izateko. Baina polita izan zen, eta kontuan hartzekoa da nitaz oroitzea.

Baina, omenaldia ikusita, badirudi lagun onak utzi dituzula behintzat...

Bai. Oso gustura egon naiz azken urte bi hauetan. Egia esan, bertan jarraitzeko asmoa neukan. Lagun onak egin ditut, jokalarien zein klubekoen artean. Pena izan da, baina hartu-eman horiek ez dira apurtuko.

> *"Futbola izan da nire bizitza beti, jaio nintzenetik, eta asko kosta zitzaidan uztea"*

> *"Niri gertatu zaidana beste batzuei ere gertatu zaie, eta ez daude gure artean"*

Zelan gogoratzen duzu futbola uzteko erabakia hartu zenuen unea?

Ez zen erraza izan. Baina, azken batean, bizitzan ez dago ezer idatzita. Jarraitzeko asmoa eduki arren, hauxe tokatu zitzaidan. Horrelakoetan, irtenbide bi dauzkazu: bata hondoa jotzea, eta bestea aurrera begiratzea. Futbola izan da nire bizitza beti, jaio nintzenetik, eta asko kosta zitzaidan uztea. Baina egin behar zen gauza bat zen.

Hilabete batzuk pasa ostean, gauzak era lasaiagoan ikusiko dituzu, ezta?

Beno, nik lehenengo momentutik eduki dut jarrera naturala. Ez diot galdetzen nire buruari bestelakoan ea zer pasatuko litzatekeen; horrela izan da eta kito. Lana bilatzen hasi nintzen, eta dagoeneko beharrean nago. Bestalde, sekulako zortea eduki dudala ere ikusten dut. Izan ere, niri gertatu zaidana beste batzuei ere gertatu zaie, eta ez daude gure artean. Bizitza nahiko normala egiteko aukera daukat, eta horri begiratu behar diot. Futbola oso garrantzitsua izan da nire bizitzan, baina ez gauza bakarra. Beti pentsatu izan dut futbolaren ostean beste bizitza bat etorriko zela, eta horixe bizitzea tokatu zait.

> *"Duela astebete, korrika apur bat egiten hasi ahal nintzela esan zidaten"*

> *"Futbola ezin izango dut orain arte bezala bizi, baina lagun artean ibiliko naiz"*

Eta orain, zelan zaude osasun aldetik? Zer esan dizute medikuek?

Ondo nago. Medikuek emandako tratamendu bat hartzen nabil, eta, lantzean behin, Donostiara joaten naiz, kontrolak-eta pasatzera. Duela astebete, korrika apur bat egiten hasi ahal nintzela esan zidaten, pixkat bat kontrolatuta.

Beraz, kirola ez duzu guztiz alboratuko...

Kirola bizitza modu bat da. Futbola ezin izango dut orain arte bezala bizi, baina lagun artean ibiliko naiz, harra kendu eta ondo pasatzeko. Horretarako gogoa daukat, baina zoratu barik, beti ere.

Bazabiltza Amorebietaren aurtengo denboraldia jarraitzen?

Asko ez. Presidenteari ere esan nion, oraindik apur bat kosta egiten zaidala partiduak ikustea. Bertan egon nintzen jokatzen, eta gura barik gertatutakoa burura etortzen zait. Hala eta guztiz ere, apur bat jarraitzen dut, eta ondo dabiltzala esango nuke. Talde sendoa egin dutela uste dut, eta partiduak irabazten dabiltza, gol gutxi sartuta izan arren.

Zurea lako egoera bat bizitzeak hausnartzera eramango zaitu, ezta? Zer sentitzen duzu barrenean?

Gertatu zaidanak eraginda, nire moduan futbola utzi behar izan duten lagunekin asko akordatu naiz. Beste lesio batzuengatik utzi behar izan dute, eta, nire ustez, eurek ere omenaldi bat merezi dute. Nirea ere beste edozein lesio lez hartzea nahiko nuke. Omenaldia niretzat izan da, baina nire partez, futbola laga behar izan duten guztientzat ere bai.

Bizkaiko ziklo-kros proba beteranoenak 500 ziklista batuko ditu, etzi, Elorrion

San Joseko landak dezente ureztatuko dituzte probaren aurretik; ziklistek ibilbide lokaztua eskertuko dutela uste dute antolatzaileek, orain arteko zirkuitu lehorretan hautsagaz borrokan ibili ostean

Aitor Hernández ermuarrak orain arteko proba biak irabazi ditu gizonetan, eta Elorrion ere bera izango da faborito nagusia.

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Domekan, 40. aldia egingo du Elorrioko Ziklo-krosak, Bizkaiko probarik beteranoenak. Espainiako Koparen barruko laugarren lasterketa izango da, eta, urtero legez, estatu mailako 500 bat txirrindularirik onenak batuko ditu mailaz maila. Kadeteetatik Masterretara maila denetako probak izango dira. 14 urte izango ditu gazteenak, eta 69 nagusienak. Urteurrena ospatzeko, antolatzaileek parte-hartzaileei egingo dieten oparia lokaztutako zirkuitua izango da. "Zirkuitua oso-oso lokaztua egongo da", abisatu du Elorrio Txirrindulari Elkarteko presidente Joseba Gorostizak. Eta txirrindulariek eskertuko dutela uste du, orain arteko proba biek zirkuitu lehorretako hautsari aurre egiten nahikoa lan izan dutelako. Eguraldi eguzkitsua aurreikusita dago eta, beraz, zirkuitua biguntzeko ureztatu egingo dute.

Bestelakoan, iazko ibilbideari eutsiko diote. Iaz zirkuitua moldatu egin zuten, eta "oso erantzun ona jaso zuen". 2,8 kilometroko bidean zehar, oztopoak, salto natural eta artifizialak, eta albora egiten duen penditz ezaguna gainditu beharko dituzte parte-hartzaileek. Elite mailan, Aitor Hernández ermuarra da faborito argia gizonetan, eta Aida Nuño asturiarra emakumeetan. 23 urtez azpikoan, Felipe Orts valentziarra eta Alicia Gonzalez asturiarra izan daitezke indartsuenak. Egoitz Murgoitio abadiñarrak ere parte hartuko du hainbeste poz eman dizkion proban: bost bider irabazi du. Juniorretan, Jokin Alberdi eta Irene Travazo dira faborito, eta kadeteetan Saioa Gil eta Jon Calvo.

40. urteurrena dela eta, San Jose landan, Elorrioko ekoizleen nezkazaritza produktuen azoka ere antolatuko dutela iragarri du Xabier Dominguez Elorrioko udaleko alkateordeak.

ORDUTEGIA

09:00 Master 40-50-60
10:00 Master 30
11:00 Kadeteak
12:15 Juniorrak eta elite / sub23 emakumeetan
13:15 Elitea eta sub23 gizonetan

Munduko txoko ikusgarriak ezagutzeko aukera, Elorrion

Erdellak bost proiekzio hitzaldi antolatu ditu astelehenetik barikura

> MENDIA

Erdella Mendizale Taldeak munduko txoko ikusgarriak ezagutzeko aukera eskainiko duten bost proiekzio-hitzaldi antolatu ditu, datorren asterako. Astelehenean, Lur Basterretxeak Tanzanian bizitako kontuak ekarriko ditu Elorriora: Kilimanjaro mendira egindako igoeragaz batera, hango bizilagunekin izandako esperientziak kontatuko ditu.

Martitzeneko filmak Etiopian eta hango Jinbar ur-jauziaren magalean dagoen arroilean barrena bizitako abenturak erakutsiko ditu. Lau egun eman zituzten arroila irekitzen. Ondoren, Javier Ruiz de Zubicoak emango ditu bidaiaren xehetasun gehiago.

Eguaztenean, Irati Anda eskalatzailea etorriko da Elorriora. *Hamarkada bat harkaitz artean* izeneko proiekzioak eskalatzaile gasteiztarraren ibilbidea errepasatuko du.

Egueneko emanaldiak Laponian (Suedia eta Norvegia artean) egindako eski zeharkaldi baten berri emango du. Espedizioak hiru elorriar izan zituen tartean. Alberto Agirreazaldegi etorriko da azalpenak emateko.

Barikuko filmaren gaia hiru mendizalek Groenlandiara egindako bisita izango da. Belaontzi batean Groenlandiako kostaldea zeharkatu, eta hainbat tokitan eskalada bideak ireki zituzten. Kepa Escribano espedizioko partaidea izango da Elorrion.

Hitzaldi denak 19:30ean hasiko dira. Irati Andarena Gaztetxean izango da; gainerako denak Iturri kultur etxean.

ADITUAREN TXOKOA

KOIKILI LERTXUNDI

Futbolaria eta enpresaria

Kirola zainetan

Azaroaren bigarren asteburu honetan iraganera salto egingo dugu otxandioarrek, gurean burutuko den Borroka Libreko Euskal Selekzioaren kontzentrazioari esker. Zehazki, Kirola Zainetan izeneko egitasmoaren baitan, eskola mailako borrokalari gazteek hain polita, diziplinatua, noblea, borobila eta exigentea den kirolean buru -belarri murgiltzeko aukera izango dute.

Baina, ez dute soilik gaztetxoek gozatuko, helduak ere gustura arituko baikara Maider Unda, Luis Crespo, Laureano Atanes, Urtzi Lertxundi edota Roberto Hojas borrokalari handien esanetara jarriz. Hori gutxi balitz, gutxiengoa duten kirol hauetan gertatzen den legez, borroka familia berriz batzeko balioko digu hitzorduak, anaikidetasuna, elkartasuna eta elkarbizitza sustatuz. Eta aste bukaera borobilduz, igandeko lan saioren ondoren, borrokalariek beraien erreferentzia den Maider bera hurbiletik ezagutuko dute, bere gaztandegira bisita eginez, azalpenak entzunez, bere oroigarria jasoz eta argazki saioa gauzatuz.

Beraz, futbolaren nagusitasunaren itzalpean, horrelako kirolen sustapenak diziplina anitzeko kirol zaletasunari argi izpia zabaltzen diotela deritzot, kirolak dituen balioen eta gaztetxoek beraien gorputza kontrolatzeko duten gaitasunaren arteko oreka lortuz. Hots, jarduera fisikoaren onurak kirolarien zainetan barreiatuz!

Eroski hipermerkatuan, zabaldu dute saltoki berria.

Schmidt-ek saltoki berria zabaldu du Abadiñoko Eroski hipermerkatuan

Iturriagak sektoreko liderra den Schmidt markako sukaldeak merkaturatuko ditu

> SUKALDEAK

Iturriaga Sukaldeak dendak saltoki berria zabaldu du, Eroski hipermerkatuan. Azaroaren 13an aurreikusi dute lokal berria inauguratzea. Beraz, Matienako herrigunean orain arte izan duten denda itxi, eta saltoki handiago baterako jauzia eman dute. Abentura berri honetan, Schmidt markako sukaldeak merkaturatuko dituzte.

Prezio-kalitate ezin hobea

Iturriaga Sukaldeak Schmidt markaren kontzesionarioa da. Dendari independenteez osatutako Schimdt sareko kide, hain zuzen. Horrela, bezeroak, bere proiektua gauzatzeko fase guztietan, Iturriagako profesionalak bidelagun izango ditu.

1959an sortua, Schmidt marka espezialista ezaguna da barruko altzarien arloan, eta ondo trebatutako espezialistek dihardute bertan lanean. Bere negozio eredu nagusia diseinuko sukaldeak dira, arrazoizko prezioetan. Horrela, lehenengo sukalde sarea bihurtu da sektorean. Esportatzen diren 10 sukaldetik 7 Smichdt markakoak dira. Nazioartean, marka hau merkaturatzen duten 450 denda daude, horietatik 54 Estatuan kokatuta daude.

> Schmidt markak 450 denda zabaldu ditu nazioartean. Estatuan 54 denda ditu

Schmidten identitate ikurra hiru fabrikatan sortutako kalitatezko produktuen erabilera da. Alsazian (Frantzia) hiru fabrika ditu eta bat Türkismühlen (Alemanian). Schmidtek erabiltzen duen sukalde eredu estandarra kontsumitzailearen sukaldearen neurrien beharretara egokitzen da. Horrela, marka honek, berrikuntzarako duen gaitasuna agerian gelditzen da. Izan ere, mila konbinazio posible baino gehiago eskaintzen ditu neurrira egindako diseinu pertsonalizatua eskaintzeko.

Belaunaldiz belaunaldi

Felix Iturriaga eta Rosa Mari Agorria senar-emazteek elektrotresna denda zabaldu zuten, Traña-Matienan, 1968an. Ondoren, altzari denda ere zabaldu zuten. Apurka-apurka, elektrotresnen negozioa alde batera utzi, eta altzari eta sukaldeen arloan finkatu ziren.

Orain dela 6 urte, gurasoak jubilatu zirenean, Gorka Iturriaga semeak hartu zuen familiako negozioaren ardura eta gidaritza.

SCHMIDT

Murueta auzoa 17B lokala
Eroski saltoki-gunea | Abadiño
Tel.: 946 526 195 | info@schmitd-abadiano.com

Olazarren finalerdietara sailkatzeko kanporaketak hasiko dituzte

Datozen asteetako eguenetan, lau t'erdi ko eta binakako finalaurdenak jokatuko dira

Gaur egun afizionatuetan dauden pilotaririk onenak batzen ditu Olazar txapelketak.

> PILOTA J.D.

Hile eta erdi iraun duten kanporaketen ostean, 24 pilotaririk onenek Olazar pilota txapelketako final laurdenak jokatuko dituzte, datozen asteetan. Binaka zein lau t'erdian, gaur egun afizionatuetan dauden gazterik onenetakoak elkarren kontra lehiatuko dira.

Datozen jardunaldietan Zaldibarren batuko diren pilotaririk gehienak Aspe edo Asegarceren orbitan daude. Aitor Elordi da saltoa emateko aukera duenetako bat. Datorren eguenean, 21:30ean, final laurdenetako partidua jokatu behar du Aitor Gorrotxategigaz bikotea osatuz. Ikusi egin beharko da Elordi jokatzeko moduan dagoen, sorbaldan tendinitis bat du eta. Aspeko medikuek egindako probetan ikusiko da lesioa zein mailatakoa den.

Biek Xabier Urbieta eta Joseba Sarasa izango dituzte aurkari. Hauek partidu bat irabazita egin dute final laurdenetarako bidea. Gorrotxagik eta Elordik estreinako partidua izango dute, multzoburuak zirelako.

Binakakoaren aurretik, lau t'erdian final laurdena jokatuko dute Egigurenek eta Espinalek. Pilotari osoak dira biak, eta badituzte baliabideak, airez zein botera. Espinal da faborito.

Azaroaren 19an, Igor Azpiri elorriarraren txanda izango da. Imazegaz bikotea osatuz, Elezkano eta Bolinaga izango dituzte aurrez aurre. Azpirik bere ibilbideko bosgarren finalerdia jokatu gura du Olazarren.

Bederatzi partidu galdu barik daramatza Amorebietak

> FUTBOLA

Amorebieta futbol taldeak bederatzi jardunaldi daramatza galdu barik. Joan zen astean, 0-1 irabazi zuen Arenasen etxean, eta, hiru puntu horiek batuta, sailkapeneko laugarren tokian kokatu dira, play off postuetan.

Carlos Docandoren gizonek porrot birekin hasi zuten denboraldia, abuztuan, baina harrezkero, ez dakite galtzea zer den: bost garaipen eta lau berdinketa. Azken hilabetean defentsako lan onak eman dizkie puntuak: Lau partidu daramatzate golik jaso gabe.

> Azken lau partiduetan ez du golik jaso, eta play off postuetan dago; bihar, Toledo dator Urritxera

Zapatuan, 17:00etan, partidu zaila dauka Amorebietak. Hirugarren dagoen Toledok bisitatuko du Urritxe. Bazkideek partidu horretarako sarrera bat doan eskuratu dezakete klubeko dendan.

Tarsiciok eta Peñak ezin izan dute Rallysprint txapelketa irabazi

Karrantzako azken proban zein txapelketan hirugarren geratu dira

Mitsubishi EVO IX.aen bolantean ibili da aurten.

> AUTO LASTERKETAK

Euskadiko Rallysprint Txapelketak emozioz betetako amaiera izan zuen, joan zen asteburuan. Hiru pilotu irabazteko aukerekin heldu ziren Karrantzako probara. Tartean, Iban Tarsicio pilotu abadiñarra zegoen, Iñigo Peña kopilotu atxondarra lagun zuela. Hiru hautagaiek borroka estuari eutsi zioten egun osoan zehar. Azkenean, Tarsiciok hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Sailkapen orokorrean ere, hirugarren geratu da.

Lasterketa bigarren amaitu zuen Aingeru Castrorentzat izan da Euskadiko Rallysprint Txapelketa. Sare sozialetan onartu duenez, "inoiz lehiatu dudan aldirik gogorrena aurtengoa izan da". Karrantzako lasterketa irabazi zuen Enrique Barrenetxea geratu da bigarren.

Gaua, kalterako

Barrenetxea eta Tarsicio nor baino nor gehiago aritu ziren egun osoan zehar, gaua egin zuen arte. "Gauez ez naiz ondo moldatzen", onartu du pilotu abadiñarrak. Hortxe galdu zituen bere aukerak.

Edozelan ere, Tarsiciok bere ibilbideko denboraldirik onena osatu du, eta ez da esku hutsik geratu. Orain aste batzuk, Mendi Igoeren Euskadiko Txapelketa irabazi zuen. Beraz, denboraldia positiboki baloratu du: "Mendiko txapelketa irabazi dut, eta rallysprintean irabazteko aukerekin egon gara azken lasterketara arte. Babesleekin berba egin dugu, eta pozik daude. Balorazioa oso ona da. Datorren urtean berriro saiatzeko gogotsu gaude", adierazi du.

Promesetako finalerdiak dituzte gaur Aspuru eta Arabiok trinketean

> TRINKETA

Azaroaren 20an, elite mailako Tornosolo Kopa hasiko dute Abadiñon, eta, aurreko asteetan, promesen mailako txapelketa jokatzen ari dira. Onenek elite mailako txapelketan parte hartu ahal izango dute.

Orain arte aurrera egitea lortu duten lau promesek finalerdiak jokatuko dituzte, gaur, 19:30ean, Abadiñoko trinketean. Abadiñar bi izango dira tartean. Asier Aspuruk Iker Gordon izango du aurkari. Biek ala biek erraz kanporatu zituzten Uribe eta Ziarrusta final laurdenetan.

Aitor Arabiourrutiak Liher Gandiagaren kontra jokatuko du finalerako txartela. GRAVN-eko txapeldun Gandiaga da faborito garbia, baina ez dago sasoirik onenean, eta abadiñarra sorpresa ematen saiatuko da, nahiz eta kantxa osoko buruz burukoa ez den bere espezialitate gustukoena.

AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta - Toledo
· Zapatuan, 17:00etan, Urritxen.

OHOREZKO MAILA (gizonak)

Iurretako - Retuerto
· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

MAILA GORENA

Zaldua - Uritarra
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

EUSKAL LIGA (emakumeak)

Berriz - Lekeitio
· Zapatuan, 18:00etan, Berrizburun.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Ezkurdi - Santutxu
· Domekan, 10:00etan, Tabiran.

BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)

Berriz - Lekeitio
· Zapatuan, 18:00etan, Berrizburun.

> ARETO-FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Elorrioko Buskantza B - Eskoriatza
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.

Mallabia Seguros Altaldi - Durangoko Sasikoa
· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

BIGARREN ERREGIONALA

Presion Break B - Adarve
· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

Gu Lagunak - Urdulizko
· Zapatuan, 16:30ean, Landakon.

EMAKUMEEN LIGA

Durangoko Sasikoa - Elorrioko Buskantza
· Domekan, 12:50ean, Landako kiroldegian.

> SASKIBALOIA

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Anbotopeko - Patronato Maristas
· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Zornotza - Eskolapios
· Domekan, 19:30ean, Ixerbekoan.

